

Kaixo, lagunok:

Edukik **JAKINDURIAREN SUBIRANOTASUNA**ri buruzko bigarren jardunaldietara gonbidatu nahi zaituzte atsegin handiz. Gogoeta, topaketa eta eraikuntza kolektiborako jardunaldiak izango dira, beti ere ospakizun eta festa gogotik.

Balmasedan (Bizkaia) antolatuko dira, ohitura dugun legez, eta oraingoan **Otsaileko azken asteburuan ospatuko ditugu, 23, 24 eta 25ean hain zuzen ere.**

lazkoan zabaldutako bideari jarraiki, "Jakinduria" kontzeptuaren inguruan eraiki ahal ditugun diskurtso ez-konbentzionaletan sakontzeko asmoa dugu. Kontzeptu honi bere ohiko jantziak erantzi nahi dizkiogu *-eskolan, enpresan, aurrerabidearen inguruko diskurtsoetan, gizarte globalizatuan... erabili ohi den J maiuskuladun Jakinduria erabateko hori alegia-*, bere esanahi berezko eta manipulaturagabeei heldu ahal izateko. Jakintza txikiak interesatzen zaizkigu, ez-merkataritzakoak, tradizionalak zein berri-berriak direnak; pertsona, familia eta komunitate bakoitzaren benetako bizitzari esanahia eta forma ematen dioten jakintza anitz eta ezberdinak. Beren sorkuntza, transmisioa eta gure mundua eraldatzeko daukaten gaitasuna interesatzen zaizkigu. **Jakinduria** (eta *egintza*) **subirano** horiek dira eztabaidatu, eutsi, aldarrikatu eta ospatu nahi ditugunak.

Jardunaldiak otsailak 23 ostiralean hasiko dira 18:00etan *Isabel Gutierrezek* eskainiko duen hitzaldi baten bidez.

Idazleak **"Crece sin Escuela"** (Eskolarik gabe hazi) familia taldearen 25 urteko esperientziari buruzko errepasoa egingo du, eta izenburu bereko liburua aurkeztuko du.

24 larunbatean 11:00etan hitzaldi batekin hasiko gara: **"Eskolari alternatiba: herria hezitzaile"**, Gorka Torre-ren ahotik (HEDA: Hezkuntza Ez Delegatzearen Aldeko sarea).

Horren ostean, solasaldirako tarteari hasiera emango zaio. **Gune Ireki** metodologia erabiliz, egun osoa emango diogu (12:00etatik 18:30etara) JAKINDURIAREN KOMUNITATE-ERAIKUNTZA ETA AUTOGESTIOAREN gaiari, baita bertatik sor litezkeen edozelako deriba eta gai ezberdinei ere. Bazkal orduan geratu egingo gara, bakoitzak etxetik ekarri dituen jaki goxoak mahai gaineratu eta partekatuz, berbaldia modu informalago batean (hori posible bada) jarraituz.

Jardunaldiak amaitzeko, 25 igandean goizez (11:00etatik aurrera) hitzaldi laburren segida bat aditu ahal izango dugu, zenbait pertsonen **Jakinduriaren Burujabetasunean** izan dituzten bizipenak eta ibilbideak kontatu baitizkigute.

Horrez gain, “**Auzolanaren Kultura. Elkarlaguntzeko prest**” laburmetraia ikusiko dugu; eta “**LA BALDOSA FLOTANTE**” taldeak zuzenean joko du.

Hilabete baino gutxiago falta da **JAKINDURIAREN SUBIRANOTASUNAREN GAINEKO II. JARDUNALDIAK** hasteko, eta zuokin guztiokin kontaktzen dugu, bertaratu eta parte hartuz, merezi duten topagune, pentsakera aske eta gizarte-aberasterako lekua gerta daitezen.

Besarkada potoloak eta laster arte!

Eduki

Sarrera librea eta musutruk izango da jarduera guzti hauetara; jardunaldien gastu minimoak berdintzeko diru-ekarpena egin nahi duenak aukera izango du beti ere. Larunbateko Gune Irekian parte hartzeko, hala ere, eta antolakuntza errazteko asmoz, eskertzekoa da aurretik izena ematen baduzue, email bat bidaliz helbide honetara: edukielkarte@gmail.com.